


# Boteretsuegia emakumea izateko



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**H**ertfordshire (Ingalaterra), 1543. Henrike VIII.a erregearen eta Ana Bolenaren alaba Elisabet hil omen zen Hatfield jauregian, 10 urte besterik ez zituela, sukarrak jota hainbat aste eman ondoren. Kat Ashley eta Thomas Parry zaintzaileek, izutu-ta, irtenbide bitxia topatu omen zuten: adin beretsuko neskato bat bilatu zuten erregearen alaba ordezkatzeko. Baina ez omen zuten neskato egokirik topatu eta Neville izeneko herriko mutiko bat, Elisabeten ikaskide eta laguna, erabili omen zuten engainurako. Inor ez omen zen iruzurraz konturatu eta mutiko hura Ingalaterrako erregina izan zen 44 urte eta 127 egunez.

Teoria XIX. mendearen erdialdean sortu zen, ustez tudortarren jantziak zeramatzan haur baten hilibia topatu zutenean. Bram Stoker idazle irlandarrak hauspotu zuen urte batzuk geroago trukearen teoria, eta 2013an, Steve Berry historialari estatubatuarrek konspirazioaren berri xehe-xehe jaso zuen *The King's Deception* lanean. Espainiar historiografiak ere zalantzan jarri du Elisabet I. arekin zerikusia duen oro, Armada Garaitezinaren porrota emakume baten meritua izan zela onartzea kostata.

Baina teoria horrek ez du inolako oinarririk. Batetik, inork gutxik espero zuen Elisabet erregina izatea. Ustezko heriotza



NATIONAL PORTRAIT GALLERY

gertatu zenean Elisabet sasikotzat zuten oraindik, eta printzesa titulua ukatuta zeukan. Urte berean Henrikeren azken emazte Katalina Parrek Elisabet gortera hurbiltzea erabaki zuen, heziketa berezia ematea, eta orduantxe berreskuratuko zituen printzesa titulua eta tronua oinordetza eskubideak, jakina, Eduardo

anaia txikiaren eta Maria ahizpa nagusiaren ondoren.

Bestetik, bere bizitzan zehar etengabe ikusi zuten biluzik Elisabet; pertsona askok lagundu behar zioten egunero jazten eta erazten; gainera, erreginaren ugalkortasuna estatu-aferra zen eta medikuek etengabe egiten zizkioten azterketak. Baina zenbaitentzat ez da nahikoa, eta 1603an hil zenean autopsiarik egin ez izanari heltzen diote.

Elisabetek ez zituen egin erregina batengandik espero zirenak: ez zen ezkondu eta ez zuen haurrik izan. Eta erregina batengandik espero ez zena egin zuen: erregea balitz bezala agindu –errege gehienek baino modu eragingarriagoan, gainera–. Trukearen istorio harrigarria sinesgarriagoa izan da askorentzat, Elisabet emakumea zela onartzea baino.

Berriki, *History Extra* BBCren historia aldizkaria izan da konspirazio teoriaren berri xehe eman duena. Eta, azkenean, Tracy Borman historialariak kategorikoki azaldu du inolako zentzurik ez daukala. Baina oraindik ere gorpua exhumatze-ko beharra ikusten duenik bada –Steve Berry idazlea horien artean–, bost mende geroago, garaiko munduko potentzia nagusiko agintari gorena emakumea izan zitekeela sinistu ezinik. ●



PIERO BAGUZZI

## Egutegia zilarrezkoa ilargian

Chão de Lamas-eko zilarrezko objektu sorta 1913an topatu zuten Coimbran (Portugal). Objektu horien artean zeltiar jatorriko zilarrezko bi ilargi zeuden. Bi ilargiak apaingarri hutsak zirela uste izan dute orain arte. Baina, berriki, adituek ilargietan egin zituzten motibo konplexuak aztertu dituzte, eta ondorioztatutako hipotesia azaldu dute *Pa-*

*leohispanica* aldizkarian. Adituen ustez, motibo horietan 114 urteko egutegi-zikloa dago jasota, 19 urteko sei ziklotan banatuta. Gainera, patroia astronomiko horrek ilargi-egutegia eguzki-egutegiarekin sinkronizatzea ahalbidetzen du. Zeltiarren ezagutza tekniko nahiz astronomikoaren erakusle da ilargierdi pare. ●